

Ziortza Lariz

Jarraiko militantea

Unibertsitatearen egoera

■ Gazte asko izango dira udako oporrak amaituta unibertsitatearekin lehen kontaktua izango dutenak. Baina zer da bertan topatuko dutena? Hori al da beraiek espero dutena? Hori al da beraien heziketarako behar dutena? Nahi dutena?

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA-NUP) delakoa Madrildik inposatutako arau eta legeen menpe daude eta horien arabera funtzionamendu zehatz bat jarraitzen dute. Euskal Herriak dituen beharrei erantzun ordez estatu espainiarren interesetara makurturik daude beti ere bertako instituzioen oneritziarekin. Hauxe da benetan unibertsitateak sakoneman, oinarrian duen arazoa eta unibertsitatea eraikitzeko prozesuan parte hartzerik izan ez dugun heinean oinarritzako akats honekin topatuko gara beti. Hitz gutxitzen esanda Euskal Herriko unibertsitateak europar eta espainiar kapitalismoaren hedapenaren morroi dira.

Honek noski ondorio batzuk ditu, zoritxarrez denok jasan behar ditugun ondorioak:

— Unibertsitatearen eraketa bera okerra da. EHU-UPV delakoak Euskal Autonomi elkartearen soilik eragina izatea, NUPA-NUP delakoa Nafarroan, eta Iparraldean berri unibertsitatekerik eza.

Banaketa fiktizio honek euskal gizartearen identitate nazionala ezabatzea du helburu.

— Unibertsitatearen barne antolakuntza, titulazio kopuruen hazkundea eta ikasketa plan berriak sistema produktiboaren beharretara erantzuten die.

— Demokrazia eza: Barne antolakuntza egitura jerarkizatu eta pertsonalizatueta oinarrituta dago. Botere banaketa tradizionala da inposatzen dena (Klaustroa-Gobernu Batzarra eta Kontseilu soziala). Egitura honek ez du inongo zilegitasunik eta legitimitate falta honen adierazle da unibertsitateko organu ezberdinak aukeratzeko egiten diren hauteskundeetako parte hartze eskaza.

Gizarteak, unibertsitatea titulazioak banatzen dituen makina bezala ikusten du, eta nahiz eta titulu bat eskuratzeko ez duen lanpostua ziurtatzen geroz eta beharrezkoagoa egin da lan merkatuan aukerarik izan nahi bada. Lan alternatibarik ez izateak, gainera, unibertsitatea titulu bila doazen ikasleek kopurua asko handitzea eragin du, eta era honetan fakultateen masifikazioa eman da. Masifikazio honen ondorioz unibertsitateak zuen elitismoa kutsu hori galdu du. Lan aukera ezak, ordea, elitismo forma berriak sortu ditu; hala nola, masterrak edo atzerriko uniber-

tistateetako estantziak, soilik ordaindu dezaketen eskura daudenak, dirurik ez dutenak marjinalizatuz honela.

Eta gutxi hau gutxi balitz unibertsitateko arduradunen ahotik *normaltasuna* nagusi dela entzun behar, zein eta bere burua nasi bakezaletasun eta uestezko neutraltasunaren defendatzaile dutenen ahotik. Hipokritak. Hauek dira gainera unibertsitatea bozgorailu modura erabiltzen dutenak. Errealitate-rik urrun dagoen normaltasun mezua lau haizeetara zabaltzen duen bozgorailua.

Urtero erreplikatzeko dira arazo berdinak eta aurten zoritxarrez ez da inongo aldaketarik eman:

— Euskararen marjinalizazioa, irakasle euskaldunen falta, hezkuntza eskeintzen gabezia eta euskararen erabilpen eza zerbitzu zein funtzionamenduan espainolizazio prozesuaren adibide garbiak dira.

— Geroz eta nabarmenagoa da unibertsitateko arduradunen jarrera autoritarioa. Beraien *normaltasun* egoera horri aurre egiten saiatzen den edozeini errepresioarekin erantzuten diote. *Normaltasun* horren parte eta babesle dira Protecsako gorpuz parapolizial ahalguztidunak eta baita bere kaxa geroz eta maizago ikus daitekeen Ertzaintza ere. Zer paper jokaten dute gorpuz militar hauek uni-

bertsitatea bezalako instituzio batean? Eta inork autoritarismo horren adibide gehiago behar badu hor dauka irakasle kaleratuen afera edota Tomas y Valienteren omenaldian izandako okupazio politziala. Ertzaintzaren presentzia itogarria eta ikasketaren orduen etenaldi behartua.

Teorian behintzat ideia zein pentsaera ezberdinen eztabaidarako gune izan beharko litzateke unibertsitatea. Pentsamendu ofizialek at dagoen guztiak, ordea, ez du lekurik aurkituko bertan; are gehiago, perseguita izateko arriskua du gainera. Horren adibide garbia da Alternatiba Demokratikoaren aurkezpenak zenbait fakultetetan gainditu behar izan zituen zailtasun eta trabak.

Argi dago unibertsitatea kuestionatzen edota aldatzen saiatzen denak txantaje, intimidazio, mehatxu eta espedientei aurre egin beharko diela.

Eta azkenik ezin ahaztu dezakegu preso dauden ikasleei ez zaiela inolako arretarik eskeintzen, are gehiago bertako instituzioek Madrildik zuzendutako matxake politikaren babesle dira. Konplizeak beraz. Egoera jasanezina da zalantzarik gabe eta pasibitateak gu ere erantzule egiten gaitu. Mugitze-ko ordua iritsi da, denek esku dago egoera hau aldatzea. Baita zure esku ere. ■

Txillardegí



Zuhurtzia

Filosofia hitza erabiltzeko asmoa etorri zait. Baina filosofo ofizialak ez mintzektan, *zuhurtzia* jarri dut azkenean; agian *herri-zuhurtzia* hobeki etorriko balitzake ere.

Eta herri-filosofia hori, nor izango ote? Indurain atarrabiarra, berbera, bai.

Aurtengo Indurain ez da lehengo. Nahiz beharaldi honetan txirindulariaren amaia zertan somatu beharrik ez badago ere. Hiru urtez zaharrago da Rominger; Gino Bartalík postu onean amaitu zuen Tourra bere 39 urteetan; eta Bottechiak, oroimenak nahasten ez banau, 41rekin burutu zuen.

Baina ez noa horretara. *«El tiempo pasa —esan du atarrabiarrak—. Así como yo quité el puesto a otros, otros me han quitado el puesto a mí. Es ley de vida...».*

Lehen Indurainek indar erakusketak galantak eman dizkigu. Orain beste maila batean gertatu zaigu maisu: bizi-legeak, eta Lizardik deitoratzen zuen *behera-beharra*, onartuz; eta harrokeriazko aitzeikiaren diximulutan ibili gabe egia jator aitortuz.

Egunero ikusten ditugun norberia harropuztak ikusita, txalotzekoa da Indurainen zuhurtzia.

Are gehiago bere erretira-garaia etorri zaiola batere seguru agertzen ez delarik.

Txalo, beraz, Induraini. Lori-egunak emango al dizkigu berriro? Agian bai, zutabegile honi dago-kionez.

Ramon Labaien



Maiteminduak eta minduak

Nolabaiteko larritasuna ari dira sortzen Euskal Herrian EAJ eta PPren arteko kuttunkeriak. Argi dago, Jeltzaleentzat hartu-eman eztabaida, akordio eta exijentzia besterik ez direnek PPren ikuspegitik zerbait gehiago ere izan behar luketela. Helburua izanik beraientzat EAJ PPren politikan nahastea eta hortik mugimendu abertzalea ahultzea. Mayor Orejak zioenez, izugarriko arrakasta izan du PP eta EAJren arteko hurbiltze horrek. Herri Batasunakoak harrituak utzi dituelako. Gertatzen dena, ordea, EAJko abertzaleok ez dugula nahi HBren harritzea baizik HBren konbentzitzea, badirela bide egokiagoak berak duen barne-indar hori Euskal Herriaren zerbitzuan erabiltzeko. Mayor Oreja Demokraziaz ari zaigu mintzatzeko eta Ideologiaz eta Interesez. Une honetan ez dira horiek eusko abertzaleetasunaren erreferentziak. Gure prioritateak jarrera bati eusten dagoz, gure maitasunak noruntz doazen azalduz, eusko sentiberatasunak babestuz. Gu ez gaude Mayor bezala Guardia Zibilarekin maiteminduak baizik minduak. Ikastolak gure etorkizunaren oinarri direla sinesten dugu eta ez terrorista kabi. Bihotzari dagokionean, bi mundu desberdinetan bizi gara. Gauza bat izanik beharrezko diren hartu-emanak edukitzea eta bestea natura-aurkako etzeitian pentsatzea.

L A P h I T Z A

